

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025	Prueba 2B, exposición de la unidad didáctica / ámbito de FP 2B proba, unitate didaktikoaren azalpena / LHko eremua
Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	
Resolución 249/2024, de 15 de noviembre / 249/2024 Ebazpena, azaroaren 15ekoa	

0590 - SERVICIOS A LA COMUNIDAD / EUSKERA

0590 - KOMUNITATEARENTZAKO ZERBITZUAK / EUSKARA

Irakaskuntzarako gaitasun pedagogikoa eta teknikoak.
--

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
ALDERDI OROKORRAK	1 pto. / puntu
Unitate didaktikoa justifikatu da eta hari testuingurua eman zaio programazioaren edo espezialitatearen gai-zerrendaren barruan. - Bat dator Nafarroako Foru Komunitatearen curriculum aplikagarriarekin eta indarrean dagoen gainerako araudiarekin. - Ezinbestekoa da moduluaren edukiak garatzeko. - Gaitasunak garatzen laguntzen du. - Lanbide-profila kontuan hartzen du	0,5 ptos. / puntu
Unitate Didaktikoa ongi egituratuta dago eta haren elementuak koherenteak dira beren artean. Elementu guztiak biltzen ditu: justifikazioa, testuingurua, ikaskuntzaren emaitzak, helburuak, edukiak (kontzeptu-mapa, sekuentziazioa, zeharkakotasuna, aniztasunarekiko arreta), metodologia, jarduerak (zabaltzea, indartzea, berreskuratzea), ebaluazioa (irizpideak, tresnak, kalifikazioa, berreskuratzea), bibliografia, materialak, tresnak eta denboralizazioa.	0,5 ptos. / puntu
HELBURUAK, EDUKIAK ETA METODOLOGIA	2 ptos. / puntu
Helburuak, edukiak eta ikaskuntzaren emaitzak ongi planteaturik daude eta koherenteak dira beren artean. Horiek guztiek gaitasun orokorrarekin eta gaitasun profesional, personal eta sozialekin, bai eta gaitasun atalekin ere, daukaten harremana zehazten da, eta, Lanbide Heziketako oinarritzko mailako heziketa zikloen kasuan, irteerako profilarekin.	1 pto. / puntu
Proposatutako metodología bat dator hezkuntza mailarekin.	1 pto. / puntu

JARDUERAK	2 ptos. / puntu
Jarduera motibagarriak eta koherenteak dira eta ikaskuntzaren emaitzak / bukaerako gaitasunak lortzearekin lotzen dira, hezkuntza mailarekin bat datozen metodologiak aplikatuta. 1. Diziplinartekotasuna, proiektuen bidezko ikaskuntza, arazo-egoerak, erronkak, sormena, autonomia, lankidetzeta eta ekintzailatza bultzatzen dituzte. 2. Espazioaren eta denboraren antolamendua, eta ikasleak taldekatzea. 3. Aniztasunari erantzuteko jarduera espezifikoak planifikatzea. 4. Saio, jarduera eta baliabide didaktikoak jasotzen ditu.	0,5 ptos. / puntu
Guneak eta denborak antolatzea	0,5 ptos. / puntu
Material eta baliabide didaktikoak erakargarriak, egokiak eta askotarikoak dira.	0,5 ptos. / puntu
Jarduerak ikaskuntza-helburuetara egokitzen dira. 1. Jarduerak Nafarroako curriculum aplikagarriaren ikaskuntzaren helburuekin eta emaitzekin lotzea. 2. Jarduerak ikaskuntza-helburuetara eta -emaitzetara, ikasgela-mailara eta -taldera eta hezkuntza-testuingurura egokitzea. 3. Jarduerak ebaluagarriak izan behar dute.	0,5 ptos. / puntu
EBALUAZIOA	2 ptos. / puntu
Ebaluazio tresnak eta bidezko kalifikazio irizpideak zehaztu dira, Nafarroan, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko datan, indarrean den araudiarekin bat. Kontuan hartu beharreko elementuak: Unitate didaktikoaren pisua programazioan. Tituluen FDez ezartzen dituzten ikaskuntzaren emaitzak eta horiei lotutako ebaluazio-irizpideak.	0,5 ptos. / puntu
Unitate didaktikoak unitatean jorratzen diren ikaskuntza emaitzekin duen lotura zehaztu da, eta, Lanbide Heziketako oinarritzko mailako zikloen kasuan, ikasleen irteerako profilari egindako ekarpena. 1.- Kalifikazio-irizpideak: koherenteak, askotarikoak eta malguak. Ikasleen aniztasunera egokituak. Objektiboki neurgarriak. 2.- Ebaluazio-prozesuak eta -tresnak: - Etengabeko ebaluaziorako egokiak - Ebaluaziorako, autoebaluaziorako eta etengabeko hobekuntzarako prozesuak eta tresnak. - Emaitzak aztertze, ondorioak ateratzeko eta hezkuntza-jarduna hobetzeko proposamenak egiteko prozesuak eta tresnak.	1,5 ptos. / puntu
KOMUNIKAZIO GAITASUNA	3 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin	2,5 ptos. / puntu
Ebaluazio epaimahaiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.	0,5 ptos. / puntu